

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Aurrekontu pertsonal bat egiten eta zer diru-sarrera eta gastu mota dauden bereizten jakitea.	<p>1.1. Aurrekontu pertsonal edo familiar bat egiten du, eta diru-sarrera eta gastu bakoitza identifikatzen ditu. Gainera, haren jarraipena eta kontrola egiteko sistema bat ezartzen du.</p> <p>1.2. Informatika-tresnak erabiltzen ditu aurrekontua garatzeko, grafikoki irudikatzeko eta aurreikuspenak ondorengo errealitatearekin konparatzeko.</p>
2. Modu arrazionalen erabakitzea bere alternatiba ekonomikoen artean, haiek norberaren eta gizartearen ongizatearekin lotzea, eta aurreztearekiko jarrera positiboa izatea.	<p>2.1. Bere ekonomia planifikatu beharra ulertzen du, eta horren haritik, zuhurtziaz aurreikusten du etorkizunean berak eta bere herriak izango duten egoera ekonomikoa.</p> <p>2.2. Aurreztearen kulturari eta gastuaren kontrolari garrantzia ematen dio; zorpetzearen alde onak eta txarrak aztertzen ditu, arriskua aintzat hartuz eta unean-unean komeni den erabakia hartuz.</p>
3. Diruaren oinarrizko funtzionamendua jakitea eta banku-kontuen motak eta ordainketa- baliabide moduan ematen diren txartelak bereiztea.	<p>3.1. Banku-kontuekiko eragiketen termino nagusiak eta funtzionamendua ulertzen du, eta bankuek ematen duten informazioa ulertu beharra aintzat hartzen du, baita segurtasunaren garrantzia ere, harremana interneten bidez egiten denean, eta finantza-entitateei erreklamatzeko prozedura aztertzen du.</p> <p>3.2. Dauden txartel modalitate guztiak bereizten ditu, eta txartel horiekin eragiketak egiteko oinarrizko segurtasunaren berri ere badu.</p>
4. Administrazio publikoen oinarrizko diru-sarreraren iturriak eta gastuak	4.1. Diru-sarrera publikoak nondik datozen badaki, eta gastu publikoaren jomuga nagusiak zein diren ere bai. Diru-sarrera eta gastu publikoen arteko harremanak komentatzen ditu, haiekin lotutako datu eta grafikoaren azterketan oinarrituta.

<p>aztertzea, egoki interpretatzea banaketa hori adierazten duten grafikoak, eta ongi ulertzea zor publikoaren eta defizit publikoaren kontzeptuak.</p>	<p>4.2. <i>Ziklo ekonomiko bakoitzean, diru-sarrera eta gastu publikoen aurreikuspena bereizten du, eta gogoeta egiten du haiek ezartzerakoan erabaki politikoek dakartzaten ondorioen inguruan.</i></p> <p>4.3. <i>Zor publikoaren eta defizit publikoaren arteko aldeak ulertzen ditu, baita bi kontzeptu horien arteko harremana ere.</i></p> <p>4.4. <i>Aurrekontu publikoak generoaren ikuspegitik aztertzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako esperientziak kontuan hartuz.</i></p>
<p>5. Zerga-sistemak errenta birbanatzeko duen garrantzia onartzea eta horretarako zer tresna erabiltzen diren jakitea.</p>	<p>5.1. <i>Errentaren desberdintasunaren efektuak interpretatzen ditu, errenta birbanatzeko tresnei buruz hausnartzen du, eta administrazio publikoek zerga- eta birbanaketa-alorretan dituzten funtzioak aztertzen ditu.</i></p>
<p>6. Enpresei eta pertsona fisikoei ezartzen zaizkien ergak bereiztea eta zerga-betebeharrak betetzeak zer-nolako garrantzia duen ulertzea.</p>	<p>6.1. <i>Enpresa eta pertsona fisikoen zerga-betebehar nagusiak zein diren badaki, baita zergen oinarritzko funtzionamendua nolako den eta zergen arteko alde nagusiak zein diren ere.</i></p> <p>6.2. <i>Zerga-kargak ongizate-estatuari eta errentaren birbanaketari dakarkion ekarpena balioesten du, eta kontzientzia hartzen du subjektu pasibo bakoitzak legean ezarritakoaren arabera zerga ordaindu beharraz eta zerga-iruzurraren gizarte-efektu negatiboaz.</i></p>
<p>7. Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-sistemaren eta lurralde komunekoaren arteko desberdintasunak ezagutzea.</p>	<p>7.1. <i>Euskal kontzertu ekonomikoaren berri badu, baita haren jatorri historikoaren berri ere.</i></p> <p>7.2. <i>Kupoa zer den ulertzen du.</i></p> <p>7.3. <i>Euskal zerga-sarea eta hari lotutako administrazio publikoak zein diren badaki, eta Foru Aldundien zeregina balioesten du bereziki, baita hainbat zerga arautzeko dute ahalmena ere.</i></p>